

JARDUERA BARIK DAUDEN LOKAL HUTSEN ERABILERA BULTZATZEKO DIRULAGUNTZA EKINTZAILTZA SUSTATUZ. LOKALBIDE PROGRAMA

UDAL SAILA:	Behargintza Saila
INSTRUKTOREA:	Behargintzako zuzendaria
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA:	DIRU Deialdi honetarako aurreikusitako zenbatekoa 36.000 eurokoa da eta udalaren 2021ko aurrekontuaren kontura izango da.
HELBURUA:	Bermeon kokatuta dauden lokal hutsei bisibildadea emotea, ekintzailtza sustatzea, garapen ekonomia indartuz lokal hutsetan.
EPEA:	<p>Aurkezteko epea 2021 urtean zehar zabalik egongo da.</p> <p>Oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta lege hori garatzen duen Erregelamenduko baldintzak bete beharko dituzte onuradunek, eta, bereziki, administrazio publikoekiko ordainketak egunean izatearena.</p> <p>Eskaerak honako moduren baten aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurrez aurre Bermeoko Udaleko erregistro orokorrean BERHAZ bulegoan, Ertzilla kalea 6-8. 48370- BERMEO • Bermeoko Udalaren webgunean. • Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.
EMATEKO ERA:	<p>Laguntza hauek emateko era norgehiagoka araubidearen bidez izango da. Laguntzak onartuko dira oinarri hauetan agertzen diren baldintzak betetzen badira. Emateko diren laguntzak esleitzeko emakidan publikotasun-, berdintasun-, lehia- eta objetibotasun-printzipioak hartuko dira kontuan.</p> <p>Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerei emango zaie laguntza, ondoren zerrendatzen diren irizpideen arabera eta deialdi honetan eskuragarri dagoen finantzaketa agortu arte.</p>
ESKATZAILEAK:	Laguntza honen onuradun izan daitezke Bermeoko lokalbide programa atxikitutako lokala alokatzen duen ekintzailea.

**DIRUZ LAGUNGARRIA
DAN KONTZEPTUA**

Lokalaren alokairuaren hileroko kostuaren gehienez 300 euro/hilean.